

6. BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure enpresak bezeroekiko harreman pertsonala eta automatizatua izango du:

- **Zerbitzu automatizatua:** hau eskainiko dugu webgunearen bitartez. Modu honetan, gure bidai agentziako zerbitzuren bat kontratatu dezakete Interneten bidez erosoagoa delako; horrela etxetik egin dezakezu. Honetarako, zerbitzu automatizatuak erabiliko ditugu bhteknologiaren bitartez zure bidaia antolatzen laguntzeko.
- **Zerbitzu pertsonalizatua:** hau eskainiko dugu bezeroek bidai plangintza zehatzago bat nahi badute edo ea zalantzak badituzte gurekin harreman estuagoa izateko eta haiek erosoago sentitzeko. Honen barruan, laguntza pertsonala eskainiko dugu bezeroek gurekin esperientzia ezin hobea izateko. Kontsulta hauek telefono bidez edo gure lokalean egingo ditugu bakoitzaren nahiak edo erosotasunak kontuan hartuta.

Bezeroekiko bi harreman mota hauek aukeratu ditugu, haiek erosoago sentitzeko eta tratu pertsonalago eta itxiago bat izateko. Horrela, bezero gehiago erakarriko ditugu. Horrez gain, gure zerbitzuak behin erabilia, bezeroak mantetzeka lortuko dugu. Harreman mota hauek erabilia, gure enpresak arrakasta lortzeko aukera gehiago edukiko ditu.